

SECCION AMENA

KIRIKO MAIZTERRA

Azkeneko bizitza
zatarcho batian,
maizter bat bizitzen zan
jabien kaltian.
Zergatik izanikan
bizitza arren jabe
gelditzen zan denboraz
errentarik gabe.
Urtiak juanagatik
jabiak etzuben
arren eskubetatik
chanpon bat ikusten.
Ezaguturik bada
okerrago zala,
onez onian utzi
barkatubaz ala;
gogor egiñ nayian
nagusiyak arri,
juan zan t'egiñ zizkaten
itz abek alkarri:
—¡Nere nagusi jauna!
¿nun dabill, nun dabill?
—Orra bada, netorren..
netorren ta nabill....
—Eseri bedi, jauna,
¿guztiyak ondo, e?
—Jaungoikoari eskerrak
bai, bai, ondo gaude;

bañan gure kontuba...
—Bapo da beñepiñ,
jetzuben aspaldiyan
onera jira egiñ!
—Badakizu Kiriko
zaudela zorretan...
—Ez aitature, ez neri
orlakorik esan.
—¿Ta zeñi, zure kontu
egonik echia?
Ez pagatzeko onena
lenbailen uztia.
—¡Nik utzi? ¿maizter zar bat
izanikan mauka?
¡bedorrek esatia
arrituba nauka!
—Ez dezula sekulan
ematen errentik,
zabiltz beti Kiriko
kirik eta kirik.
—Orrenbeste denbora
biziturik emen
ez dala nere echia
etzait iduritzen.
Oraindañore gera
bizitu nolapait,
¿utzi nik? ez, nai badu
errenta igo bezait.

MARCELINO SOROA.